

**Eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen
erabilera sustatzen**

**AISIALDIKO, ESKOLA JANTOKIETAKO ETA
KULTUR JARDUERETAKO**

HEZITZAILEEN FORMAZIO IKASTAROAK

Haur eta nerabeek eskola orduz kanpokoak diren baina dinamizatuak diren hainbat gune eta jardueretan parte hartzen dute. Jarduera horiek egoera egokiak dira euskararen erabilera sustatzeko eta euskarazko bizipenak eskaintzeko. Irakasleek ikasgelan eta ikastetxeko beste eremuetan egin dezaketenaren bide osagarri eta garrantzitsuak dira eskolaz kanpoko jarduerak.

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik hainbat urte daramatzagu jarduera horietako hezitzaileei begirako formazioa eskaintzen. Honakoak dira jarduera nagusiak:

- Eskola jantokiak
- Udaleku Irekiak eta Itxiak
- Ludotekak eta gaztelekuak
- Kultur jarduerak: dantza, musika edota antzerkia
- Bestelakoak: euskara errefortzu programak, besteak beste

Jardueretara egokitutako hainbat eduki garatu ditugu eta ludotekei edo udalekuei begirako gidak ere landu izan ditugu, besteak beste.

Formazio saioak

Haur eta gazteei begira antolatzen diren eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileei begira, honakoak dira ohiko saioak:

- Oinarrizko saioa
- Proposamen zehatzak eta aholkuak
- Saio praktikoak

Kontuan izan behar da jardueren ezaugarrien arabera eta antolatzaileen aukeren eta beharren arabera, eskaintza egokitu eta osatu daitekeela.

Oinarrizko saioa: abiapuntuko saioak dira eta hezitzaileei oinarrizko irizpideak eta estrategiak eskaintzea bilatzen da. Zergatik sustatu euskararen erabilera eskola orduz kanpoko jardueretan? Zer egin? Zer ez egin? Zein dira

oinarrizko estrategiak? Saio hauetan edozein hezitzailek parte har dezake eta ez dago banaketa egin beharrik parte hartzaileen edo jardueren ezaugarrien arabera: haur eta gazteekin aritzen direnak izan daitezke, eta aisialdian, kultur jardueretan edo beste jardueraren batean aritzen direnak elkarrekin aritu daitezke.

Proposamen zehatzak eta aholkuak: oinarrizko saioaren garapena da eta hainbat proposamen eta aholku eskaintzen dira. Zer egin haur batek ez badu euskaraz egin nahi? Nola jokatu hezitzaileak berak euskaraz aritzeko mugak baditu? Zein jarduera dira egokiak erabilera sustatzeko? Nola txertatu hizkuntza-jolasak gure jardueretan?, eta abar. Hezitzaile taldea txikia bada (10 hezitzaile ingurura arte), hasierako taldea mantenduko litzateke. Baina hezitzaile taldea handia bada, hobe talde txikiagoa egitea eta hezitzaileak jardueren eta parte hartzaileen arabera banatzea: kirola alde batetik eta besteak bestetik, adibidez.

Saio praktikoak: jardueren ezaugarrietara erabat egokitutako saioak. Bideoak erabiliko dira, simulazioak egingo dira, adibide errealak aurkeztuko dira... Ahalik eta praktikoena izatera begira, jarduera egiten den lekuan bertan egin daitezke saioak eta, noski, jardueraren ezaugarriak eta parte hartzaileen adina kontuan izango dira. Adibidez: dantza, futbola, saskibaloia, ludoteka...

Eskaintza osagarria

Formazio saioak egiteaz gain, Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik jarraipena egiteko eta hobekuntzak proposatzeko aukera eskaintzen dugu. Honakoak dira aukera horiek:

- Koordinatzaileekin lan saioak: jardueretako koordinatzaileek formazio saioak eta lan saio osagarriak egin daitezke. Saio horien helburua da hezitzaileekin landurakoa programazioan txertatzeko bideak lantzea, eta hezitzaileei jarraipena egiteko moduak adostea.
- Galdetegi bidezko jarraipena: formazio saioetan parte hartzen duten hezitzaileei galdetegi bidez jarraipena egiteko aukera ere eskaintzen dugu. Galdetegi horien bidez hiru helburu lortu nahi dira: batetik, taldeetan benetako hizkuntza-errealitatea ikustea, hezitzaileei beraien

taldeetara egokitutako proposamen zehatzak egin ahal izatea, eta antolatzaileei jasotako errealitate horretatik abiatuz hobekuntzak edo garatu daitezkeen bideak proposatu ahal izatea.

- Behaketa bidezko jarraipena: jarduerfa batzuen kasuan euskararen erabilera sustatzea erabat txerrtatua eta barneatua dagoen gai bat da. Kasu horietan Ebetetik lanketa sakonago bat egiteko aukera eskaintzen dugu. Hau da: jarduerara joaten da teknikaria eta aurrez aurre ikusten ditu saio batzuk, eta hortik abiatuz euskararen erabilera indartzera begirako proposamenak lantzedn ditu eta hezitzaileei aurkezten dizkie.
- Saio osagarriak edo jarraipen saioak: azkenik, ikastaroa egin eta denbora batera bi modutako saioak ere eskaintzen dira. Zehazki: ikastaroan parte hartu zutenekin berriz ere saio bat egitea egoera ebaluatzeko, ideiak errepasatzeko eta proposamen berriak aurkeztea. Edota, hezitzaile berriak sartu badira hezitzaile horiekin saio bat egitea oinarriak eta estrategiak aurkezteko, eta hainbat baliabide eskaintzeko.